

IKASTOLA-NAGUSIA ETA EUSKAL-GIZABIDEA *

Goien jaun agurgarriok!

Andere eta jaunak!

Nere maisu eta adiskide Aranzadi'tar Telesforo zanak, «Eusko-Ikaskuntzaran Ilgarren Biltzarrean egin zigun irakasaldian, argiro esan zuan auxe: Euskalherriko Ikastola-nagusi edo Unibersitateak bere helburutzat behar duala *bizipidea*, *gizabidea* eta *iker-keta* erakustea, hiru lanbide hauekin euskal-ezikera batzen duala.

Helburu honegaz hitz bi esatera noa, nahizta dakidala gai hauek zuen ikaskuntzetan maiz erabiliak dituzutela. Hala ere ikastaro baten aseran gogai hauek berritza egoki dala dirudi.

Ikastola-nagusitik *bizipideetan* jakitun egiñiko ikasleak itxaro ditugu.

Bainan egiteko honen oinarria ikaskuntza da. Ikaskuntza berriz gure mundu hontako gertakiak eta hauen jatorri eta eragilleak aztertuz irixten da.

* Euskal Herriko Unibertsitateko *Donostiako I Udako Ikastaroak* dalazkoan egina lehen irakasaldia, Donostia, 1982, VIII, 23.

Azterketa edo ikerketa da beraz Unibersitatearen egitekorik zinezkoena, ikaskuntzak eta anzolanak sorrerazteko; eta ikasleak beren lanetan gogoz eta benetan sarrerazteko biderik egokiena.

Unibersitatearen beste eginkizun garrantzitsu bat, bere ikasleak *gizabidean* hezitzea da. Honekin esan nahi bait da, alegia, Unibersitateak ereduazko irakaskintza ere eman behar duala, ikasleak noruntz beren bizikera eta jardura zuzendu behar duten erakutsiaz, egiazko gizaki egin ditezten.

Gizakiari etzaio aski bere inguruko eta urrunagako gauzak zer diran jakitea. Ba-du beste ikas-behar ziñezko bat ere. Jakina bait da, bere barnean sartzen dan gizakiari sortzen zaizkiola beste galde batzuek, batez ere bere izateari buruz. Galde hauek, alegia: *ni zer naiz? ni zertarako naiz?*

Galde hauei erantzutea: hara hor gure ziñezko ikas-beharra.

Gai honi buruz erantzuerak munduan zear ez dira denak berdinak. Euskal-herrian gehien onharturik erabili izan dana, hemen aipatuko dugu.

Euskaldunak egin izan dizkio bere buruari galde horiek. Eta ikusi du ez dala bere baitan, ez dala berez, berari eragiten dion izaki ulermendun baten baitan baino: Jainkoaren baitan, alegia. Eta hala aitortu ere izan du. Beraz Jaikoari lotuak gaudela geren izatez eta gertaki hau aitortu behar dugula geren adimenez eta bihotzez, ots Jainkoa maitatuaz. Jainkoa egiaz maite ba-dugu ordea, maite beharko ditugu harek, gu bezala, maite dituanak, gure lagun-urkoak, alegia. Gure elkartearen eskarria beraz maitetasuna da; ez ordea gorrotoa, ez indarkeria, ez guda. Eta maitasun hortan oinarritua dator gizartearen hunako zulubi hau bere mailaekin; zuzenbidea, elkarren bebegiruneak, eskubideak, egikizanak. Hara bada hor *euskal-gizabidea*, euskal-hezikearen zuraje bezala ager zaiguna, orain artio gehien onhartua izan dan euskal-egitaraua.

Hori da beraz bizikeraren egitamu bat: berak marratzen digu gure egikizunai eman behar diegun zuzenbidea; bera da gure jo-kaeraren eredia eta ezikeraren oinarria.

Bainan zenbait aitzaki edo eragillen indarrez gizakia maiz irten oi da bere jardunbidearen eredutik. Eragille horiek urrun begira jartzen dute, asko bait dira gaurko egunean eta sekulan baino indartsuagoak.

Gure aro hau egiaz leiatu da gu bakoitza arrunt geronetik ateratzen, gauzen azalakin ditugun har-emanak ugalduerazten, entzunak ausnartzeko astia ebasten, gure bakartasunean sartuta gogoeta bat bederen-sortzera ez uzten, dakarzkigun millaka esaunda ergel auzitan hartzeko betarik ez ematen eta horrela gure barneko bizikera eta nortasuna ttikitzen edo ezerezten.

Gure mundu hontan denok igituaz eta guztioi eragiñez dabilzan indar kanpokoi horien zurrunbilloan ikas gentzazke ezin esan ala iragarbide samaldaka; joku eta jolasketa; jolas-tokietara eten gabeko dei eta deadarrak; egunkariak eta milla eratako liburuxkak; irratiak, zinemak eta telebistak edozenen aukeran; ibilbide asko eta ibiltzeko erreztasun ugari nun-nahi; politikarien eta orrelako alderdikerien taldeak; eta heuren batzartegiak, askotan gudaiztegiz jantzitako griñakabi izan oi diran biltokiak.

Ara hor askorentzat galbide dan kanporakoi edo kanpora begira neurrigabe jarrerazten gaituen erainkin edo makina.

Egoitz beldurgarria benetan, batez ere gaztediarentzat. Ikas-toletako irakasleak begien aurrean erabili behar dutena: ikasle asko maila arin eta ergel hortako zurrunbilloan amilka dabiltzala alegia. Eta giro hortan murgiltzen utzi gabe, bera menderatzen denei erakutsi eta euskal-gizabidearen esoin eta zurajea guztiei aurkeztu alegindu behar direla.

Hortan alegintzen dan irakaslea Unibersitatearen egitekorik garrantzitsuena egiten ari da eta bere jarduera onhartua eta eskertua izanen da Euskal-herrian.

LA UNIVERSIDAD Y EL HUMANISMO *

(Lección inaugural del I curso de verano de la Universidad del País Vasco. 23 de Agosto de 1982).

Excmos. señores

Señoras y señores:

Mi inolvidable maestro D. Telesforo de Aranzadi, en su lección del II Congreso de Estudios Vascos, decía que la Universidad del País Vasco tiene unos fines o quehaceres: el profesional, el educativo y el de investigación, a los que debe ir incorporando el conocimiento directo de la cultura del pueblo vasco.

De la Universidad esperamos desde luego que prepare profesionales en todos los ramos del saber. Pero esta labor requiere como base la ciencia, a la que se llega investigando los fenómenos y los agentes del mundo en torno. Es, pues, la investigación una misión fundamental de la Universidad, único modo de contribuir al desarrollo de las ciencias y de las técnicas, y de iniciar a los alumnos en un aprendizaje activo y fecundo.

* Lección inaugural del *I Curso de Verano de Donostia*, 23 de Agosto de 1982, organizado por la Euskal Herriko Unibertsitatea.

Otra misión de la Universidad en la educativa. Con esto queremos decir que la Universidad debe impartir también una enseñanza normativa y así procurar que el alumno se realice como hombre.

Al hombre no le basta preguntar qué son las cosas de su contorno e ir conociendo lo cósmico, lo vegetal, lo animal que tiene en sí; a él le asaltan también otras acuciantes preguntas que son el *porqué* y el *para qué* de la propia vida.

Al vasco se le han planteado, como a otros, estos problemas tan característicamente humanos, y, a partir del hecho de su contingencia, les ha dado una solución al reconocer un ser anterior, y superior como razón suprema de su existencia.

Conforme a esta concepción del hombre, debemos decir que no dependemos totalmente de nosotros mismos, sino de otro que nos trasciende infinitamente, es decir, de Dios. Nos hallamos, pues, ligados con Dios en cuanto a nuestra existencia y así debemos reconocerlo tanto mentalmente cuanto afectuosamente, amándole sobre todos.

Sobre este razonamiento esquemático y a partir del amor como base del comportamiento humano, ha instituido el vasco, como otras etnias en el mundo, su escala de valores: respeto mutuo, justicia, derecho, deber, responsabilidad.

He ahí nuestro humanismo, suerte de estructura que hallamos en el trasfondo de la cultura tradicional vasca, una visión del hombre generalmente aceptada aquí hasta ahora, aunque a veces, impulsados por factores infrahumanos, hayamos andado por otros derroteros en la práctica de la vida.

Tal es, pues, el programa general de la vida que marca la orientación que debíamos dar a nuestros quehaceres, norma de nuestro comportamiento y base de toda labor educativa.

He dicho que, por muchas causas o pretextos, nos apartamos a veces de nuestro plan de vida. Tales causas son de las que acrean la extraversion del hombre, hoy más numerosas y más poderosas que nunca. La época se ha empeñado en exteriorizar a uno, apocando o anulando su vida íntima y su personal existencia, multiplicando sus contactos con lo superficial de las cosas o de la vida

social, de modo que no deja tiempo para repensar, para hallarse a solas y valorar o someter a juicio las mil especies que irrumpen en la mente.

En esta vorágine de elementos centrífugos o centrifugadores que nuestra generación ha puesto en movimiento, gravitando constantemente sobre cada uno de nosotros, cabe señalar los innumerables procedimientos publicitarios; juegos y deportes multitudinarios; solicitudes o llamadas incesantes a lugares de diversión y de placeres; periódicos, revistas y mil suertes de publicaciones; radio, cine y televisión al alcance de cualquiera; fáciles medios de comunicación y de transporte o locomoción; grupos políticos y de sectas, en los que muchas veces el apasionamiento, más que las convicciones, crea un vocabulario de guerra; desfiles con carteles seductores y manifestaciones de multitudes que ululan por consignas o siglas ambiguas, etc.

He aquí algunos de los dispositivos de extroversión, constantes llamadas a la periferia, que actúan sobre cada uno, muchas veces con merma evidente de la vida interior auténticamente humana.

Situación que constriñe a todos, especialmente peligrosa para los jóvenes. Situación vital, que aquellos profesores de centros docentes cuya enseñanza esté relacionada con estos temas deberán tener presente, a fin de evitar que sus discípulos sean dominados por ella, presentarles un programa general de vida conforme al humanismo vasco y orientarlos de suerte que puedan reaccionar ante las solicitudes nocivas del mundo en torno. Esperamos que una tal labor educativa será agradecida por Euskalherria.